AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

1008

24/2014 DEKRETUA, otsailaren 25ekoa, M.ª Teresa Astigarraga Goenaga andrea Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoko bokal izendatzen duena.

Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzko azaroaren 24ko Legearen 6.3 eta 7.2 artikuluetan ezarritakoari jarraituz, eta Batzorde horrek erabili behar dituen gaiei buruz duen gaitasun profesional egiaztatua kontuan hartuta, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuaren proposamenez, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2014ko otsailaren 25ean egindako bilkuran proposamena aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

M.ª Teresa Astigarraga Goenaga andrea Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoko bokal izendatzea.

Vitoria-Gasteizen, 2014ko otsailaren 25ean.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Herri Administrazio eta Justiziako sailburua,
JOSU IÑAKI ERCORECA GERVASIO.